

Prentsa oharra

Nota de prensa



HIRIARI BURUZKO MARRAZKI-ERAKUSKETA BATEK AMAIERA EMANGO DIO "ZURE HIRIA DESKUBRITZEN" ESKOLA-PROGRAMARI

Ekainaren 10etik (astelehena) 23ra (igandea) bitartean, Garbera merkataritza-zentroak erakusketa bat egingo du, Ekialdeko Barrutiko bost ikastetxetako ikasleek egindako marrazkiekin. Donostiako Udaleko Aniztasuneko, Inklusioko eta berdintasuneko Zinegotzigoak abian jarritako "Zure Hiria Deskubritzen" programan parte hartu duten ikasleen lanak dira.

Cristina Lagé arduradunak azpimarratu du "ikasleek interes handiarekin parte hartu dutela programa berrizaille honetan. Helburua zen haur donostiarrak kontzientziatzea hiri bateko kide izatearen sentimenduaz eta erantzukizun zibikoaz, biok gaztetatik bereganatzen baitira. Donostia, haren historia eta Udala bezalako erakunde baten funtzionamendua ezagutzea izan da ekimen honen interes nagusia. Datorren ikasturtean jarraipena izango du, beste ikastetxe batzuen parte hartzearekin."

Hala, bada, joan den apirilean, Altza SJC, Intxaurrondo Hegoa, La Asuncion, Herrera eta Mendiola ikastetxe publikoek hiriko gune interesgarriak bisitatu zituzten autobus turistiko batean, eta Udaletxean amaitu zuten bisita. Bertan, Udalbatza Aretoa, Gobernu Batzarraren Gela, Harrera Gela eta beste areto batzuk ezagutu zituzten.



Prentsa oharra

Nota de prensa

Programa amaitzeko, marrazki-lehiaketa bat egin zen, eta eslogan bat sortu, herritarren parte izateak, jarrera zibikoa izateak eta gainerakoekin errespetuz jokatzek duten garrantzia laburbildu nahi zuena.

Epaimahai batek aukeratu ditu marrazki irabazleak, ikastetxe bakoitzeko bana. Ikasleek egindako gainerako lanekin batera, Garbera merkataritza-guneko korridore jendetsuenetako batean jarriko dira ikusgai.


Lehiaketak Chillida Leku, Donostia Turismoa, FCC eta merkataritza-gunearen babesaren izan du. Horiek guztiek opariak eman dizkiete irabazleei, bai eta programan parte hartu duten LH6ko ikasleen irakasleentzako oroitzapen berezi bat ere, oso estimatua izan dena.

Hauek izan dira marrazki irabazleak:

HEGOA IKASTETXEA

JOSEPH DAVID
SANDOVAL
CASTAÑEDA

"Donostia bat
bakarra munduan"



HERRERA
IKASTETXEA

KANDY BALMACEDA
AVALOS

"Gora Donosti!"



Prentsa oharra

Nota de prensa

ALTZA SJC
ARHANE CERVIÑO
"Donostia zaintzea
gure esku dago"



**LA ASUNCION
IKASTETXEA**
**MISSIEL PAULA
CALVO DÍAZ**
"Zure hiria zaintzea
zeure burua zaintzea
da"



**MENDIOLA
IKASTETXEA**
LIAM QUINTO
"Zure hiria zainduz,
disfrutatuko duzu"




Prentsa oharra

Nota de prensa

Udaleko Hezkuntza Ataleko ordezkariak izan dira epaimahaiko buru, eta erakunde laguntzaileetako kideek ere parte hartu dute. Zehatz esan, honako hauek izan dira epaimahaikideak:

- Cristina Lagé: Aniztasuneko, Inklusioko eta Berdintasuneko zinegotzi ordezkaria
- Carlos García: Hiri Mantentze eta Zerbitzuetako zinegotzi ordezkaria
- Imanol Tellería: Gizarte Sustapen eta Hezkuntza Zerbitzuaren burua
- Isabel Aguirrezabala: Donostia Turismoko zuzendaria
- Nuria Vega: Garbera merkataritza-guneko kudeatzailea
- Mireia Massagué: Chillida Leku Museoko zuzendaria



Sandra Fernández Sayaverak egin du Zure Hiria Deskubritzen programaren irudia.
Diseinatzaile grafikoa

